



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko ekainaren 20a

87. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Berako, Vianako, Altsasuko eta Baztango udalek beren udalerrietako ikastolei egindako ekarpenei buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Berako, Vianako, Altsasuko eta Baztango udalek beren udalerrietako ikastolei egindako ekarpenei buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko ekainaren 4an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Berako, Vianako, Altsasuko eta Baztango udalek beren udalerrietako ikastolei egindako ekarpenei buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Berako, Vianako, Altsasuko eta Baztango udalek beren udalerrietako ikastolei egindako ekarpenei buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
 - II. Helburuak eta norainokoa (4. or.).
 - III. Udalek beren udalerrietako ikastolei egindako ekarpenen azterketa (5. or.).
 - III.1. Berako Udala - Labiaga Ikastola (5 or.).
 - III.2. Vianako Udala - Erentzun Ikastola eta Erentzun Fundazioa (6. or.).
 - III.3. Altsasuko Udala - Iñigo Aritza Ikastola (7. or.).
 - III.4. Baztango Udala - Baztan Ikastola (8. or.).
 - IV. Ondorioak eta gomendioak (9. or.).
- Behin-behineko txostenari egindako alegazioak (10. or.).
- Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (11. or.).

I. SARRERA

2017ko azaroaren hasieran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak egindako lau eskaera parlamentario erregistratu ziren Nafarroako Kontuen Ganberan, Unión del Pueblo Navarro eta Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioek sustatuak, Ganberak fiskalizazio-txosten bat egin zezan, zenbait udalek beren udalerrietako ikastolak zirela-eta egindako gastu eta lurzoru nahiz eraikin publikoen lagapen jakin batzuei buruz.

Txosten hau, hasiera batean, Ganbera honek irakaskuntza pribatu ez-unibertsitarioari buruz egin duen beste batean sartzekoa zen, baina aparte egin zedila eskatu zen 2016ko azaroaren 27an egindako eskaera parlamentarioaren bidez.

Eskaeretan honako gai hauek aztertzeko eskatu zen, zehazki:

- Berako Udalaren lokalak Labiaga Ikastolari lagatzea; laga eta gero Udalak lokal horietan egindako inbertsio-gastuak eta gastu arruntak, eta jarduketa horien guztien legezko balorazioa.
- Vianako Udalak Erentzun Ikastolari eta Erentzun Patronatuari emandako zuzeneko laguntzak; Udalak erakunde horiei kontusail izengabeen bitartez emandako zeharkako laguntzak, eta jarduketa horien legezko balorazioa.

Aurreko bi eskaerak Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak sustatu zituen.

- Baztango Udalak titulartasun pribatuko Baztan Ikastolaren eraikinean egindako inbertsio-gastuak; Udalak bere gain hartu dituen ikastola horren gastu arruntak, eta jarduketan legezko balorazioa.
- Altsasuko Udalak Iñigo Aritza Ikastolaren eraikinean egindako inbertsio-gastuak; Udalak bere gain hartu dituen ikastola horren gastu arruntak, eta jarduketa horien legezko balorazioa.

Bi eskaera horiek Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak sustatu zituen.

Azterlan hori Kontuen Ganberak 2017. urterako onartu zuen fiskalizazioko urteko programan sartu zen, eta auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako lantaldeak egin zuen, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin, 2017ko abendutik 2018ko otsailera bitartean.

Txostenak lau atal dauzka, sarrera hau barne; bigarrenak egindako lanaren helburuak, norainokoa eta mugak jasotzen ditu; hirugarrenean, udalerriei eta ikastolei buruz egindako azterketa azaltzen da; eta laugarrenean, azkenekoan, ondorioak eta gomendioak azaltzen dira.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak eman nahi dizkiegu txosten honetan aztertutako udal eta ikastoletako langileei.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, lan honen emaitzak honako hauei jakinarazi zitzaizkien, alegazioak aurkez zituzten: Bera, Viana, Altsasu eta Baztango udaletako alkateak.

- Bera, Viana, Altsasu eta Baztango udaletako alkateak.
- Labiaga, Erentzun, Iñigo Aritza eta Baztan ikastoletako zuzendaritza-kideak.

Kontuen Ganberak ezarritako epean, alegazioak aurkeztu dituzte Vianako Udaleko alkateak eta Baztan eta Labiaga ikastoletako zuzendariak. Alegazio horiek ez dute aldaketarik ekarri gure txostenean. Ganbera honek haiei emandako erantzunarekin batera, behin betiko txostenean gehitu ditugu.

II. HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Honako hauek dira lan honen helburuak, Parlamentutik jaso ditugun eskariak kontuan hartuta:

- Udalek beren gain hartu dituzten ikastolen gastu arruntak eta inbertsio-gastuak kuantifikatzea, bai eta toki entitateek hezkuntza zentro horiei azken sei urteetan (2012-2017) emandako zuzeneko laguntzak ere, halakorik bada.
- Udalek beren udalerrietako ikastolei lurzoru publikoaren eta udal lokalen zer lagapen egin dizkieten zehaztea.
- Jarduketa horien legezkotasuna baloratzea.

Lana egin da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, eta, funtsean, finantza-auditoriako fiskalizazioei dagozkien ISSAI-ES arauak, bigarren eta laugarren mailakoak, aplikatu dira, eta, zehatzago, partida zehatz batzuen berrikuspenari dagozkionak, eta betetzeari buruzkoak.

Gure lana egiteko, udalei informazioa eskatu diegu azken sei urteetan beren gain hartu dituzten ikastolen gastuei buruz eta ikastolei laga dizkieten lurzoru publiko edo eraikin publikoei buruz. Horixe da gastuak kuantifikatzeko erabili dugun informazioa, eta ez ditugu sakonago aztertu udalek aztergai diren sei urte hauetan egin dituzten aurrekontu-likidazioak.

Emandako zenbait laguntzaren justifikazioari buruzko informazioa eskatu diegu udalei eta ikastolei.

Kontuan hartu ditugu, gainera, Kontuen Ganbera honek 2012ko apirilean eta 2016ko maiatzean argitaratu zituen bi txosten, Altsasuko Udalarari buruzkoa (2010eko ekitaldia) eta Baztango Udalarari buruzkoa (2014ko ekitaldia), udalerririk horietako ikastolekin zerikusia zuten zenbait alderdi aztertu zituztenak. Bestalde, txosten hau eta funts publikoekin finantzatutako ikastetxe pribatuetako irakaskuntza ez-unibertsitarioari buruzkoa aldi berean egin dira eta beste txosten horren ondorioak hemen ere kontuan hartu dira.

III. UDALEK BEREN UDALERRIETAKO IKASTOLEI EGINDAKO EKARPENEN AZTERKETA

Ekarpen horiek analizatu baino lehen, nabarmendu nahi dugu bai lagapenak bai laguntza ekonomikoak udalerrietan euskara babestu eta sustatzeko politiken barruan kokatu behar direla; eremu euskalduneko udalerrriak dira guztiak, Vianakoa izan ezik. Lagapenak 70eko hamarkadaren amaieraz geroztik egin izan dira, eta laguntza gehienak ere duela 20 urte baino gehiago hasi ziren ematen.

Funts publikoekin finantzaturako ikastetxe pribatuetako irakaskuntza ez-unibertsitarioari buruzko txostenean Ganbera honek adierazi duen moduan, Nafarroako 66 ikastetxe itunduetatik 11ri egindako 19 lagapen daude jasorik; halaber, aipaturako txostenak dioenez, 2012-2016 bitartean 26 udalek guztira 2,11 milioi euro eman zizkieten 34 ikastetxe itunduri.

Azken batean, aztertuko ditugun lagapenak eta laguntza ekonomikoak ez dira salbuespenezkoak Foru Komunitatean, eta hemen aztertutakoek gain beste ikastetxe batzuek ere jaso izan dituzte.

III.1. BERAKO UDALA - LABIAGA IKASTOLA

Beran ikastetxe publiko bat dago, eta bi ikastetxe itundu: Labiaga Ikastolak Haur Hezkuntzako zikloa, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa ematen ditu, eta Jesusen Bihotza Ikastetxeak Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza eskaintzen ditu. Ikastetxe publikoan eta ikastolan ikasketak euskaraz ematen dira, eta beste ikastetxe itunduan gaztelaniaz.

Labiaga Ikastolak bi eraikinetan egiten du aipaturako jarduera; Udalaren Osoko Bilkurak horietako bat ikastolari lagatzea erabaki zuen 1982an, baina ikastolak lehenagotik erabiltzen zuen; beste eraikina ikastolak egin zuen, Udalak 1996an 50 urterako laga zion 5.289 m²-ko lurzatian.

Bi lagapenak doakoak dira. Dena den, bigarren kasuan, 50 urteak igarotakoan Udala ikastolak egindako eraikinez jabetuko da inolako kalte-ordainik eman gabe.

Azken sei urteetan (2012-2017) Udalak bere gain hartu dituen Labiaga Ikastolaren gastuak gutxi gorabehera 300.000 eurokoak izan dira. Hona xehetasunak:

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	Guztira
Ura	*	*	*	489	735	929	2.153
Garbiketa	41.501	39.663	40.386	35.688	42.014	42.014	241.266
Berokuntzarako gasolioa	4.037	4.943	3.981	3.452	4.069	3.519	24.001
Berokuntzaren mantentzea	2.654	4.450	988	1.318	5.002	1.086	15.498
Desinfekzioa	0	300	306	312	318	325	1.561
Auditoria energetikoa	0	0	0	0	0	1.227	1.227
Biomasa-sistemaren kanalizazioa	0	0	0	0	0	13.862	13.862
Guztira	48.192	49.357	45.662	41.259	52.139	62.962	299.572

* Urte horietako ur gastua ezin da zehaztu, ez dagoelako kontagailu bereizirik.

Udalak bere gain hartutako gastu garrantzitsuena garbiketarena da, guztizkoaren ehuneko 85 inguru, 2017an izan ezik: urte horretan gastu berezia egin zen, biomasa-instalazioaren hodia ikastolak egin zuen eraikineraino eramateko, eta garbiketaren portzentajea ehuneko 67ra jaitsi zen. Nabarmendu nahi dugu Udalak eraikin publikoetako garbiketaren kontratua lizitatzen duenean ikastolak erabiltzen dituen bi eraikinak ere barruan hartzen dituela eta, ondorioz, fakturak haren izenean egiten direla.

Beste gastu ohikoak (berokuntza eta desinfekzioa) Udalak lagatuko eraikinekoak dira, eta horien fakturak ere Udalaren izenean egiten dira.

2015az geroztik Udalak biomasaren energia erabiltzen du eraikin publikoak berotzeko, ikastolari lagatuko eraikina tartean; 2017an, Udalak energia hori ikastolak egindako eraikineraino bideratzeko beharrezkoak ziren obrak egin zituen, eta zenbatekoa goiko taulan ageri da (13.862 euro). Obra horiek bere gain hartu dituen arren, Udalak hurrengo urteetan ikastolari fakturatuko dizkio biomasa kontsumoa eta inbertsioaren amortizazioa.

Ez da inolako akordio edo hitzarmenetan jaso Udalak gastu horiek bere gain hartzearen justifikaziorik.

Udalerriko beste ikastetxe itunduari dagokionez, ez da ageri inolako laguntzarik jaso duenik.

III.2. VIANAKO UDALA - ERENTZUN IKASTOLA ETA ERENTZUN FUNDAZIOA

Vianan ikastetxe itundu bat dago, Erentzun Ikastola. Gainera, 2007aren amaieran ikastolako gurasoen elkarteak eta ikastolak berak Erentzun Fundazioa eratu zuten, helburu hau zutela:

*“... euskararen eta euskal kulturaren alde eta haien ezagutzaren, praktikaren, irakaskuntza-
ren, garapenaren, transmisioaren eta hedapenaren alde era guztietako jarduerak sustatu, egin,
antolatu, babestu, bultzatu eta finantzatzea...”*

Udalak bi erakunde horiei azken sei urteetan emandako laguntzen xehetasunak honako hauek dira:

		2012	2013	2014	2015	2016	2017	Guztira
Erentzun Ikastola	Ikasleak igerilekuetara eramatea	234	0	0	0	0	0	234
	Inauteriko ospakizuna	300	300	300	300	300	300	1.800
	Mantentzea eta funtzionamendua	12.000	12.000	12.000	15.000	10.000	10.000	71.000
	Pailazo ikuskizuna	3.000	0	0	0	0	0	3.000
	Ikastolaren zorraren amortizazioa	0	0	0	0	30.000	0	30.000
	Gizarte ekimeneko hezk. proiektua	0	0	0	0	0	10.000	10.000
Guztira		15.534	12.300	12.300	15.300	40.300	20.300	116.034
Erentzun Fundazioa	Artisautza Azoka	0	4.500	4.500	4.500	4.500	4.500	22.500
	Olentzero eta M. Domingi	0	200	200	0	200	200	800
	Pilotalekuko horma konpontzeko ekarpena	0	0	3.000	0	0	0	3.000
	Haurrentzako emanaldia	0	0	0	3000	0	0	3.000
Guztira		0	4.700	7.700	7.500	4.700	4.700	29.300

Laguntza horiek diru-laguntza izendun gisa ageri dira aurrekontuetan. Beraz, zuzenean eman zitzaizkien bai ikastolari bai fundazioari.

Diru-laguntza izendun gisa ageri ez den laguntza bakarra ikastolaren zorraren amortizazioari dagokiona da, 30.000 eurokoa, 2016an. Diru-laguntza hori Udalaren Osoko Bilkurak 2016ko uztailean hartutako erabaki baten bidez onetsi zen, zeinak hasiera batez onetsi baitzuen egin beharreko aurrekontu-aldaketa. Gero hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Ikastolaren mantentze eta funtzionamendurako laguntzak ikastolak aurretiaz eskatuta ematen dira, eta gero faktura eta ordainagiri guztiak aurkezten dira. Gastuen gainfinantzaketarik ez dagoela adierazten duen ziurtagiria ere aurkezten da. Hori dela eta, nabarmendu nahi dugu udalerriko ikastetxe publikoak eta institutu publikoak ere zuzeneko laguntzak jasotzen dituztela helburu horretarako.

Erentzun Fundazioari dagokionez, Udalak zuzeneko laguntzak ematen dizkio jarduerak antolatzeko, eta gero fundazioak justifikatu egiten ditu izan dituen gastuak.

Fundazioari 2014an 3.000 euroko laguntza eman zitzaion ikastolaren eraikineko pilotalekuko horma bat konpontzeko, eta laguntza horren justifikazioa aztertu dugu; zuzenean eman zen, Alkatetzaren dekretu baten bidez. Egindako azterketatik ondorioztatzen dugu justifikazioa egokia dela eta araudiarekin bat datorrela.

III.3. ALTSASUKO UDALA - IÑIGO ARITZA IKASTOLA

Altsasun bi ikastetxe itundu daude: Iñigo Aritza Ikastola eta Jesusen Bihotza Ikastetxea. Bi ikastetxeetan Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako zikloak ematen dira.

Ikastolak bi eraikin banandutan ematen ditu ikasketa horiek. Udalak lagatako lurretan eraikiak dira. Lursailletako bat 2007an laga zen 50 urterako, eta epe hori 99 urteraino luza daiteke; ikastolak urtean 1.000 euro inguruko kanona ordaintzen dio Udalari (zenbatekoa KPIaren arabera aldatzen da). Beste erakina 20.000 m²-ko lursail batean dago. Lursail hori 1977an laga zen, eta laga-pena doakoa izan zen.

Aurrekoaz gain, 1974-1975 ikasturtetik 2007ra bitartean ikastolak Udalaren hiru eraikin okupatu zituen (ez hirurak batera), doan, Haur Hezkuntzako zikloa emateko. 2007tik aurrera Udalak eraikin hori berreskuratu zuen, aurreko paragrafoan aipatutako lursaila laga baitzuen.

Udalak ikastolari azken sei urteetan finantzatutako gastuak 240.000 eurokoak dira, honela banatuta:

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	Guztira
Finantza-gastuak	45.000	45.000	45.000	45.000	45.000	14.687	239.687

Udalaren Osoko Bilkurak, 90eko hamarkadaren hasieran, ikastolari urtero laguntza ekonomiko finkoa ematea erabaki zuen, eta 2012-2016 bitarteko zenbatekoak diru-laguntza izendun horri dagozkio. Laguntza horren zenbatekoa nabarmen igo zen 2010ean, 45.000 euroraino hain zuzen, zenbait faktore zirela eta: ikastolaren hezkuntza-eskaintza Haur Hezkuntzako lehen ziklora (0-3 urte) hedatzea, funtzionamendu gastuak handitzea, eta inguruko udalek ikastolan dabilzan beren haurrengatik ematen duten laguntzarekin parekatzea.

Ganbera honek Altsasuko Udalaren 2010eko ekitaldia fiskalizatu zuen, eta ondorioztatu zuen diru-laguntza hori ez zegoela inongo akordio edo lankidetzaren hitzarmenetan formalizatuta, eta horrelakoren bat egiteko gomendatu zion toki entitateari. Hitzarmena 2012an egin zen, eta bertan ezarri ziren diruz lagundu beharreko gastuak (argindarra, berokuntza, ura, telefonoa, garbitzailak eta abar). Gainera, diru-laguntzaren interes publikoko xedea Nafarroan euskararen irakasuntzak aurrera egin zezan sustatzea zela adierazi zen.

Diru-laguntza izendun hori aurrekontuetatik kendu zen 2017an, eta haren ordez diru-laguntzen deialdi irekia egin zen Altsasuko ikastetxe publiko eta pribatu guztientzat eta ikasleen guraso elkarrengatzen. Deialdian 48.000 euroko gastua aurreikusi zen, eta azkenean 30.903 euroko diru-laguntza eman zitzaion zazpi ikastetxe onuradunei; zenbateko horretatik, taulan ageri den bezala, ikastolak 14.687 euro jaso zituen.

Ez dago jasorik Altsasuko beste ikastetxe itunduari, Jesusen Bihotza Ikastetxeari, laguntzarik eman zaionik 2012-2016 bitartean, ezta Udalaren lursail edo eraikinik laga zaionik ere. Dena den, 2017an 3.705 euroko diru-laguntza jaso zuen aurreko paragrafoan aipatutako deialdi irekian.

Jada aipatu dugunez, beste udal batzuek laguntzak ematen dizkiote ikastolari, Altsasun matrikulatuta dauzkaten haurrengatik. Ikastolari 2012-2016 bitartean emandako laguntzen berri eskatu diegu udalei, eta datu hauek eskuratu ditugu:

	2012	2013	2014	2015	2016	Guztira
Altsasuko Udala	45.000	45.000	45.000	45.000	45.000	225.000
Olaztiko Udala	38.181	21.207	21.827	18.619	19.422	119.256
Urdiaingo Udala	12.385	13.020	13.484	13.500	13.500	65.889
Ziordiko Udala	10.890	10.789	73.223	7.165	7.778	109.845
Guztira	106.456	90.016	153.534	84.284	85.700	519.990

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ere, itunak arautzen dituen moduluaren bitartez, funtzionamendu gastuetarako diru-laguntza ematen duela kontuan izanik, konparatu egin ditugu, batetik udalek 2016an emandako laguntzen (85.700 euro) eta Administrazioak 2016-2017

ikasturterako ikastolari emandako diru-laguntzaren (108.933 euro) arteko batura, eta bestetik ikastolaren gastuen guztizkoa, fakturretan ageri dena, eta gastuen guztizko zenbatekoa jasotako finantzaketa baino handiagoa izan dela ikusi dugu.

III.4. BAZTANGO UDALA - BAZTAN IKASTOLA

Kontuen Ganberak 2016ko maiatzean Baztango Udalaren 2014ko ekitaldiari buruzko txostena eman zuen, Baztan Ikastolaren azterketa barne.

Txosten horretan azaldu zen bezala, Baztan Ikastola udal erakunde autonomoa da, Baztango Udalak 1983an sortua, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasketak euskaraz emateko.

Nafarroako udal ikastola publiko bakarra da, eta ez dago Foru Komunitatearekin itundutako ikastetxeen sarean, baina Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren diru-laguntza jasotzen du, 2015ean egindako hitzarmen arauemailearen bidez. Ikastetxe itunduei ordaintzen zaien modulua adinako zenbatekoa jasotzen du. Ikastolak ordaintzen ditu langileen nominak. Ez dago Hezkuntza Departamentuaren ordainketa delegaturik ikastetxe itunduetan bezala, baina ikastolak ikastetxe itunduen moduluan langileen gastuei dagokien zatia jasotzen du.

Ikastolaren egungo estatutuak 2000. urtekoak dira. Horietan ezartzen denez, ikastola Udalaren ente instituzional bat da, nortasun juridiko propioa eta independentea duena. Badu bere barne-erregelamendua, eta Nafarroako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen erregelamendu organikoa bete behar du. Erregelamendu hori 1997an onetsi zen.

Erakunde autonomoa denez, ikastolak badu bere aurrekontua; hala ere, fakturretako batzuk, garbiketarekin, berokuntzarekin edo argindarrarekin zerikusia dutenak, Udalaren izenean egiten dira, eta Udalak onetsi, kontabilizatu eta ordaintzen ditu gastuetako 4. kapituluan, ikastolarentzako transferentzia gisa. Faktura horiek 2017ko ekitalditik aurrera 2. kapituluan kontabilizatzen dira, ordea.

Aurrean aipatutako txostenean Ganbera honek gomendatu zuen ikastola izatea fakturen titularrak, eta gero dokumentu horiek Udalari aurkeztea, finantza zitzan.

Egiaztatu dugu Udalak ez dituela gomendio horiek bete eta Ganberaren 2016ko maiatzeko txostenean deskribatutako egoerak bere horretan dirauela. Nolanahi ere, fakturen kontabilitatea aldatu egin da eta orain 2. kapituluan erregistratzen dira, oraindik Udalaren izenean egiten badira ere.

Zehazki, Udalaren gastuen aurrekontuko 4. kapituluan ikastolaren gastu hauek sartu ziren 2012-2016 bitartean:

	2012	2013	2014	2015	2016	Guztira
Ikastolaren gastuak, Baztango Udalaren aurrekontuko 4. kapitulua	55.556	47.516	35.530	41.737	45.407	225.745

2017. urtean, ikastolaren 54.342 euroko gastuak egotzi zitzaizkion Udalaren gastuen aurrekontuko 2. kapituluari.

IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Egindako azterlana kontuan hartuta, ondorio hauek atera ditugu:

- Berako eta Altsasuko udalek beren udalerrietako ikastolei eraikin edo lursail publikoak lagatzeari dagokionez, ikus Ganbera honek “Funts publikoekin finantzatutako ikastetxe pribatuetako irakaskuntza ez-unibertsitarioa, 2012-2016 bitarteko ekitaldiak” izenburuko txostenean azaldutako ondorioak. Txosten horretan adierazten dugu lagapen horiek gure iritziz ordenamendu juridikoaren arabera direla, onuradun diren entitateek interes orokorreko jarduera baterako erabiltzen dituztelako eraikinak eta lurak, irakaskuntzarako, hain zuzen.

- Eman diren laguntza publikoak direla eta, uste dugu toki entitateek zilegi dutela laguntzak ematea ikasketa horiek ematen dituzten toki titulartasuneko ikastetxeei. Toki Araubidearen Oinarri buruzko Legearen 25.2 artikulua horretarako eskumena aitortzen die, berariaz aipatzen baititu “...*Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako edo Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoetarako diren udal eraikinen kontserbazioa, mantentzea eta zaintza...*”.

Ikastetxe itunduei dagokienez, funtsean itunen araubidearen bitartez finantzatu behar lirateke, eta halaxe berretsi dugu funts publikoekin finantzatutako ikastetxe pribatuetako irakaskuntza ez-unibertsitarioari buruzko txostenean, non ikusten baita ikastetxe horiek jasotzen dituzten laguntzen guztizko zenbatekoaren ehuneko 99,7 Nafarroako Gobernutik datorrela, derrigorrezko hezkuntza doakoa bermatzeko. Udalek komenigarritzat jotzen dituzten bestelako premiak asetzen lagunduko duten beste hezkuntza-jarduera batzuk sustatu nahi badituzte, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren esparruan egin beharko dute.

- Aurrekoa kontuan izanda, uste dugu aztertutako laguntzek araudia betetzen dutela, Berako Udalak emandakoak izan ezik; izan ere, aurreko atalean aipatutako Labiaga Ikastolaren gastu horiek ikastolak hartu behar lituzke bere gain eta ez Udalak, edo bestela hitzarmen egokia egin behar litzateke.

- Azkenik, Baztan Ikastolaren kasua, udal horri buruz 2016an egindako txostenean Ganbera honek adierazi zuen moduan, kasu berezia da, udal erakunde autonomoa delako, ikastetxe itunduen saretik kanpokoak, nahiz eta Hezkuntza Departamentutik diru-laguntza jaso hitzarmen berezi baten bidez.

Ondorio horiek kontuan hartuta, hona hemen gure gomendioak:

- *Udalen laguntzak itunen araubidearekin koordinatzea edo araubide horretan sartzea.*

- *Udalek ikastetxe itunduei ematen dizkieten laguntzei diru-laguntzen araubide orokorra aplikatzea; horrela publikotasunaren, tratu berdintasunaren, gardentasunaren, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta baliabideak eraginkortasunez eta efizientziaz esleitu eta erabiltzearen printzipioak errespetatuko dira, bestelako jarduerak sustatu nahi badira.*

- *Baztan Ikastola udal erakunde autonomoaren izaera aztertzea eta hura Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ikastetxe itunduen sarean sartzea komeni ote den baloratzea.*

- *Baztan Ikastolaren funtzionamendu gastuak fakturatzea eta ikastolak berak onartu, kontabilizatu eta ordaintzea, eta gero fakturak Udalari aurkeztea, Udalak finantza ditzan, baldin eta entitate horri udal erakunde autonomo gisa eustea erabakitzen bada.*

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 29an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINDAKO ALEGAZIOAK**BAZTAN IKASTOLA**

Aintzane Aguirre Saldias andreak, Baztan Ikastola Udal Patronatua ikastetxeko zuzendaria den aldetik, Bera, Viana, Altsasu eta Baztango udalen ekarpenei buruz 2018ko maiatzean emandako behin-behineko txostena ikusirik, alegazio hau egiten du:

Txostenaren IV. atalean (Ondorioak eta gomendioak), azken-hirugarren lerroaldean, Kontuen Ganberak gomendatzen du Baztan Ikastola udal erakunde autonomoaren izaera azter dadila eta hura Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ikastetxe itunduen sarean sartzea komeni ote den balora dadila.

Baztan Ikastolak oso positiboki baloratzen ditu bere udal izaera eta horrek ikastetxeari ematen dion izaera, alegia, zerbitzu publiko gardena izatea; beraz, ez dugu egokitzat jotzen ikastetxe itunduen sarean sartzeko aukerari buruzko gomendioa. Alegazio hau aintzat hartzea nahi genuke.

Elizondon, 2018ko maiatzaren 24an

Aintzane Aguirre Saldias

LABIAGA IKASTOLA

Amaya Irazoqui Romano andreak, Labiaga Ikastolako zuzendaria den aldetik, Bera, Viana, Altsasu eta Baztango udalen ekarpenei buruz 2018ko maiatzean emandako behin-behineko txostena ikusirik, alegazio hauek egiten ditu:

Lehenengoa.- Txostenaren IV. atalean (Ondorioak eta gomendioak), Kontuen Ganberak adierazten du Labiaga Ikastolak hartu behar lituzkeela bere gain gastuak, eta ez Udalak.

Berako Labiaga Ikastola dagoeneko lanean ari da Berako Udalarekin akordio edo lankidetzahitzarmen bat adostu ahal izateko, txostenean aipatutako puntu guztiak jaso behar dituen, ordenamendu juridikoarekin bat etor dadin.

Horrenbestez, uste dugu zentzu horretan egin behar dela Kontuen Ganberaren oharra, Ikastolaren eta Udalaren arteko akordioa edo lankidetzahitzarmena egiteko eskatuz, eta ez erakunde horrek Ikastolari ematen dizkion laguntzak kentzeko.

Beran, 2018ko maiatzaren 22an

Amaya Irazoqui Romano

VIANAKO UDALA

M. B. Yolanda González García, Vianako (Nafarroa) Udaleko alkate-udalburua

Zenbait udalek, tartean Vianakoak, beren udalerrietako ikastolei egiten dizkieten ekarpenei buruzko behin-behineko txostena dela eta, alegazioetarako epearen barruan, hau adierazi nahi dugu:

Txostenarekin ados gaude oro har, soilik eskatu nahi genuke ohar labur bat eransteko, txostenaren 8. orrialdeko edukia argitze aldera, honako hau dioen lekuan:

"Diru-laguntza izendun gisa ageri ez den laguntza bakarra ikastolaren zorraren amortizazioari dagokiona da, 30.000 eurokoa, 2016an".

Hasierako aurrekontuan ez zegoen halako kontusailik, baina aurrekontua betetzen ari zenean aurrekontu-aldaketa bat izapidetu zen eta kontusail hori onetsi zen bere aurrekontuzukidurarekin eta onuradunarekin, aurrekontuko gastuen egoera-orrietan zehazturik ager zedin; gero egin ziren izapidetak Aurrekontuaren onespeneren berdin-berdinak izan ziren.

Hori dela eta, gure iritziz, kontusail hori indarrean jarri eta behin betiko aurrekontuan sartu zenez geroztik, diru-laguntza izenduntzat jo daiteke, eta horregatik nahi genuke txostenaren ez

agertzea esaldi hori, alegia, "Diru-laguntza izendun gisa ageri ez den laguntza bakarra... ", zeren, gure ikuspuntutik, nahasbidea ekar dezake.

Honelako zerbait jar liteke, ongi iruditzen bazaizue: "HASIERA BATEZ ONETSITAKO AURREKONTUAN diru-laguntza izendun gisa ageri ez den laguntza bakarra ikastolaren zorraren amortizazioari dagokiona da, 30.000 eurokoa, 2016an".

Vianan, 2018ko maiatzaren 25ean

Alkate-udalburua: María B. Yolanda González García

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Eskerrak ematen dizkiegu Vianako Udaleko alkateari eta Baztan eta Labiaga ikastoletako zuzendariari aurkeztu dizkiguten alegazioengatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari erantsen zaizkio eta hori behin betikotzat hartzen da, egindako fiskalizazioaren azalpena direlako eta ez dutelako haren edukia aldatzen. Halere, honako hau aipatu nahi dugu:

Baztan Ikastolaren alegazioei dagokienez, berriro gomendatzen dugu udal izaera kendu eta ikastetxe itunduen sarean sartzeko aukeraren egokitasuna azter dadila. Udal izaerari eusten bazaio, gomendatzen dugu, Ganbera honek Baztango Udalarari buruz behinola egin zuen txostenean (2014ko ekitaldia) egin genuen bezala, ikastolako gobernu organoaren osaera azter dadila, Udalak haren gaineko kontrola baliatu ahal izan dezan.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 29an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

